

ERABAKIA, 2015EKO OTSAILAREN 24KOA, EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEKO GERENTEARENA, HORREN BIDEZ, ONDARE ETA KONTRATAZIOETARAKO GERENTEORDETZARAKO "ZERBITZU LAN ETA EKIPAMENDURAKO ADMINISTRARIA" LANPOSTUA ALDI BATEZ ETA ZERBITZU EGINKIZUNETAN BETETZEKO DEIALDIA, 2015EKO URTARRILAREN 8KOA, EBATZI DA.

GERTAKARIAK

Lehenengoa.- Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearen 2015eko urtarrilaren 8ko erabakiaren bidez deialdia argitaratu zen.

Bigarrena.- 2014ko otsailaren 4ko erabakiaren bidez, aipatutako deialdian onartutako lehiakideen behin betiko zerrenda argitaratu zen.

Hirugarrena.- Gerentzia honek deialdi honetan onartutako izangaiek adierazi eta egiaztatu dituzten merezimenduak baloratzeari ekin dio.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Honako hauek dira aplikagarri:

- Azaroaren 26ko Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea (urtarrilaren 13ko 4/1999 Legeak aldatua).
- Euskal Herriko Unibertsitateko langileen lan-baldintzak arautzeko akordioa (1996ko urriaren 23ko erabakia, 1996ko azaroaren 12ko EHAAn argitaratua).
- Gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu arloak zehazteko, eta eskumenak eskuordetzeko den 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia, UPV/EHUko errektorearena (2013ko otsailaren 13ko EHAA)
- Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

- Deialdia egiteko UPV/EHUko gerentearen 2014ko ekainaren 23ko erabakia eta horrekin bat datorren gainerako araudi aplikagarri orokorra.

Bigarrena.- Gerentzia honek eskumena du erabaki hau emateko; izan ere, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena hartutako 2013ko urtarrilaren 30eko errektorearen erabakiaren bidez (2013ko otsailaren 13ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian), eskuordetu zaio horretarako eskumena.

Hirugarrena: Deialdiko lanpostua zerbitzu-betekizunen bidez hornitzeko prozedura Euskal Herriko Unibertsitateko administrazio eta zerbitzuetako pertsonala funtzionarioentzako zerbitzu betekizunak esleitzeko prozedura haztatua ezartzeko AZP Funtzionarioen Plangintza Batzordeak 2014ko uztailaren 1ean hartutako akordioa izango da. Akordioa hau Gobernu Kontseiluak 2014ko uztailaren 10eko erabakiaren bidez berretsi zuen. (2014ko abuztuko 27ko EHAAn).

Laugarrena.- Aipatutako prozedurak ezartzen du hautatua izango dela merezimenduak baloratzeko zehaztutako baremazioaren arabera puntu gehien lortzen dituen izangaia eta, betiere, laugarren artikuluan adierazitako hurrenkerari jarraituko zaio hautaketa egiterakoan. Hautatutako pertsona adierazitako epean hasiko da zerbitzu betekizunen xede den lanpostuan edo eginkizunetan.

Horregatik guztiagatik, eman zaizkion eskumenak erabiliz, honako hau

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Ondare eta Kontratazioetarako Gerenteordetarako "Zerbitzu Lan eta Ekipamendurako Administraria" lanpostua Zerbitzu eginkizunetan aldi baterako esleitzea, hautatutako funtzionarioari, erabaki honetako I. eranskinean jasota dauden baldintzetan.

Bigarrena.- Esleipena 2015eko martxoaren 23ko ondorio-datuz egitea. Esleipen hori indarrean egongo da 2014ko uztailaren 1eko erabakiaren 9. artikuluan adierazitakoaren arabera.

Hirugarrena.- Erabaki hau eta dagozkion eranskinak argitaratzea UPV/EHUren webgunean.

Laugarrena.- Erabaki hau jakinaraztea interesdunari, Ondare eta Kontratazioetarako Gerenteordetzarako Zerbitzu Buruari, Leioako Erizaintzako U. E. rako Administratzaileari, eta nominen atalari. Har beza kontuan AZPren atalak.

Bosgarrena.- Erabaki honek administrazio-bidea agortzen du eta honen kontra

aukerako berraztertze errekurtsoa jar dakioko gerentzia honi, hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jarri ahal izango da administrazioarekiko auzietarako epaitegietan bi hilabeteko epean. Epe horiek erabakia lehen adierazitako moduan argitaratu eta eta hurrengo egunetik hasiko dira kontatzen.

Leioan, 2015eko otsailaren 24an.

Errektorearen eskumenak eskuordetuta: 2013ko urtarrilaren 30eko erabakia ,
(2013ko otsailaren 13ko EHAA).

GERENTZIA



Sinatua: Miren Lorea Bilbao Arteche

I. ERANSKINA

2015eko OTSAILAREN 24ko ERABAKIA, UPV/EHUKO GERENTEARENA ONDARE ETA KONTRATAZIOETARAKO GERENTEORDETZARAKO "ZERBITZU LAN ETA EKIPAMENDURAKO ADMINISTRARIA" LANPOSTUA ZERBITZU EGINKIZUNEN ERREGIMENEAN EMATEA EBAZTEN DUENA (2015EKO URTARRILAREN 8ko ERABAKIAREN BIDEZ IRAGARRITAKO DEIALDIA)

Esleipenduna: **NEKANE ALKORTA LECUMBERRI**

Lanpostua: Zerbitzu Lan eta Ekipamendurako Administraria

lanaldia: Normalizatua

Zenbatgarrena: 2

Erreferentzia: F5179

Eskala: Administraria/Administrari Laguntzailea

Taldea: C/D

Maila: 18

Hizkuntza eskakizuna: 2

Langunea: Ondare eta Kontratazioetarako Gerenteordetza

Campusa: Bizkaia

Ondorioetarako data: 2015eko martxoaren 23

